

## GOBERNU BATZARRA

2015. 04. 24

**Alkatea:**

**Ibai Iriarte San Vicente**

**Zinegotziak:**

**Lore Agirre Zipitria**

**Hasier de los Rios Soraluze**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Kontuhartzaitzako Teknikaria:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko apirilaren hogeita lauan eguerdiko 12:30etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Bedaioko Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze obrak egiteko kontra-tuaren 2. ziurtagiria (12/2015 faktura).

3.- Kontseilua: Dirulaguntza 2015.

4.-ESEP (Euskara sustatzeko ekintza plana) 2015-19.

5.-ESEP 2015. urteko kudeaketa plangintza.

6.- Udaberriko egitaraua eta aurrekontua.

7.-TEE-CIT: 2015eko hitzarmen proposamena eta urteko dirulaguntza.

8.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2015 urteko ekarpen finkoa eta urtarrila eta otsaileko fakturak.

9.- Izaskun Andre Maria plaza 2-1ngo esk. Helbidea duen etxebizitzari 2014ko auzokonposta egiteagatik dagokion dirulaguntzaren zuzenketa.

10.-Ibilgailuren zergaren ordainketa zatikatzea.

11.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

**12.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.  
Errekargua. Jarduera ekonomikoa.**

**13.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.  
Errekargua. Herentzia.**

**14.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.  
Errekargua. Alokairua.**

**15.-8/2015 zenbakia duen faktura-  
zerrenda.**

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko apirilaren 17an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.-Bedaioako Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze obrak egiteko kontratuaren 2. ziurtagiria (12/2015 faktura).**

Bi mila eta hamabosteko urtarrilaren 30n, Construcciones Francisco Aierbe, S.I., enpresari esleitu zitzaion Bedaioako Abadetxe Etxean sendotze eta lurreztatze obran proiektua , 259.548,61€ (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila eta hamabosteko martxoaren 30ean, obra zuzendaritzak aurkeztu du 2. ziurtagiria , 85.642,99 €-koa.

Hortaz, ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Tolosako N-laren Ipar lotura biribildune bat eraikitzeko 2. ziurtagiria (fak zkia: 12/2015), 85.642,99€koa (BEZa barne).

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Construcciones Francisco Aierbe, S.I., enpresari eta Kontuhartzailtzari.

### **3.- Kontseilua: Dirulaguntza 2015.**

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua euskarak garapen osoa izatea helburu duten erakundearen bizigunea da, eta maila personal, sozial eta ofizialean euskararen normalizazioa

edo berreskuratze osoa lortzea da bere helburua. Erakunde publikoekiko lankidetzan egiten du lan hori.

Kontseilua irabazi-xederik gabeko kultura-erakundea da; onura publikoko izendatua eta lehentasunezko zat jotzen den jarduera duena.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeko batzordeburuak Kontseiluak aurkeztutako dirulaguntzaren eskaeraren berri eman du.

Hortaz, Gobernu Batzarrak, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 2015 urterako Kontseiluari 5.000 euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Bideratzea dirulaguntzaren tramitazioa hitzarmen baten bidez.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Kontseiluari.

### **4.- ESEP (Euskara sustatzeko ekintza plana) 2015-19.**

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuak ESEP plangintza estrategikoa aurkeztu du.

Eusko Jaurlaritzak marko berria onartu duenez, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Tolosako Udalak ere marko berri horri dagokion plangintza estrategikoa egin eta onartu behar du, baita urtez urteko kudeaketa plangintza zehatzak ere. Horretara dator behean agertuko dena, marko berri horri erantzun egokia ematera, udal moduan egokitzen zaigun plangintza egitera.

Berez, udalek bi erreferentzia marko dituzte hizkuntza normalkuntzaren arloan; batetik, Udaleko Erabilera Plana, udal barruko hizkuntza politika finkatzen duena eta 2018a bitartean onartuta daukana Tolosako Udalak, eta, bestetik, hizkuntza politika zabalago eta orokorragoa (gizarteko esparru guztietarako) sustatzen duena, goian aipatutako ESEP (lehen EBPZ zena).

Ikusita, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak aurtengo otsailaren 20an egindako proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea ESEP 2015-19 plan estrategikoa.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari.

#### **5.- ESEP 2015. urteko kudeaketa plangintza.**

Hizkuntza Politika eta Hezkuntzako departamentuak ESEP 2015. urteko kudeaketa plana aurkeztu du.

Bertan, euskara arloak 2015eko urtean bideratzeko dituen egitasmoak jasotzen dira. Txostena euskara zerbitzuko kideek batzordebururekin landutakoa da.

Proposatzen diren jarduera gehienak 2014ko kudeaketa plangintzan jasotakoen segida dira. Horiei gehitu zaizkie ESEP 2015-19 plan estrategikoan jasota dauden zenbait ekintza, horietako hainbat dagoeneko aurtengo urte amaieran aztergai darabiltzagunak.

Txostenean, hasieran, hurrengo urterako helburu eta ekintza nagusiak jaso dira eta ondoren atalez ataleko aurrekontua eta ekintzak jasotzen dira.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak aurtengo otsailaren 20an egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea ESEP 2015. urteko kudeaketa plangintza.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

#### **6.- Udaberriko egitaraua eta aurrekontua.**

Kultur departamentuko teknikariak datozen hiru hilabetetako Udaberriko egitaraua aurkeztu du. Horietako gehienak Udalak antolatuak direla dio, baina beste batzuk eragileek beren kabuz antolatutakoak. Dantza zirkuituko ikuskizunetan, Jaurlaritzak katxetaren zati bat ordaintzen duela argitu du, eta Udalak ordaintzen duena, ia erdia besterik ez dela.

Gauzak horrela, Kultura Batzordeak aurtengo apirilaren 21ean egindako proposamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Udaberrirako aurkeztu den egitaraua eta hori aurrera eramateko 27.330,50 €-ko aurrekontua onartzea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura departamentuari.

#### **7.- TEE-CIT: 2015eko hitzarmen proposamena eta urteko dirulaguntza.**

Hitzarmen proposamenaren berri eman zaie batzordekideei, eta iazkoarekin alderatuta ia berdina dela ikusi da.

Kontuan hartuz, Kultura batzordeak aurtengo apirilaren 21ean egindako proposamena, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea 80.000€-ko kopurua, 2015 urteko jardueretarako (Topic-eko jarduera, Abesbatza Lehiaketa, Txotxongilo Jaialdia eta Amalur jardunaldiak), hitzarmenean jasotzeko.

**BIGARRENA.**- Amalur jardunaldien X. urteurreneko egitarau bereziagatik, 5.000€ onartzea.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitzari eta Kultura departamentuari.

#### **8.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2015 urteko ekarpen finkoa eta urtarrila eta otsaileko fakturak.**

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

\* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturalari dagokiena.

\***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2015eko apirilaren 13an Tolosako Udalari dagokion ekarpen finkoa ekarpenaren agiria aurkeztu du.

Zabor bilketa kostua:	949.297,38
Gastu estrukturalak:	330.992,65
<b>GUZTIRA:</b>	<b>1.280.289,65</b>

Bestalde, Tolosaldea Mankomunitateak urtarrila et otsaileko fakturak aurkeztu ditu:

2015 urtarrila: 75.874,85  
2015 otsaila: 117.817,11

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako ekarpen finkoa. Kopuru osoa: 1.280.289,65 €.

**BIGARRENA.-** Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako urtarrileko eta otsaileko fakturak onartzea:

2015 urtarila: 75,874,85  
2015 otsaila: 117.817,11

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

### **9.-Izaskun Andre Maria plaza 2-1ngo esk. Helbidea duen etxebizitzari 2014ko auzokonposta egiteagatik dagokion dirulaguntzaren zuzenketa.**

Gaia erabaki gabe geratu da.

### **10.- Ibilgailuren zergaren ordainketa zatikatzea.**

Bi mila eta hamabosteko apirilaren 21ean, **F.F.C.O.**ek hiru ibilgailuen (NA-1817.AL, 1999-BHG eta 4330-HWC) zergen ordainketa (252,25 € gehi %5eko errekarquak) zatikatzea eskatu du. Berak hilabeteen 50 euro ordaintzea eskatzen du, hau da, 6 hilabeteetako zatikapena.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabete direla dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: "Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du."

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Ez onartzea **F.F.C.O.** en eskaera, sei hilabeteetako zatikapena ordenantzak dioena baina gehiago delako.

**BIGARRENA.-** **F.F.C.O.** en izenean dauden 3 ibilgailuen zergen ordainketa (252,25 € gehi errekarquak) 3 hilabeteetan zatikatzea.

**HIRUGARRENA.-** Zatikatzeko honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

### **11.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratuta zen.

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, eta 2015eko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarqua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileren lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral, acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Espedientean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebizitzetan erroldatuta.

Hala ere, errekgua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

*“Errekargu honen helburuen espirtu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errekguaren salbuespena onartzea ala ez”.*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Errekargua EZ aplikatzea 1 eta 3 eranskinetan agertzen diren zergadunei. Horiek dira espedientean Idazkariak diligentziatuta jasotako zerrendetan daudenak. 1. eranskinari dagokionez, egoera berezian daudelako, eta 3. eranskinean, berriz, gaur egun etxebizitza horiek hutsik ez daudelako.

**BIGARRENA.**- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko errekgua aplikatzea 2. eranskinean Idazkariak diligentziatuta agertzen diren zergadunei, zeren 2015ko urtarrilaren 1ean ez zirelako inoren ohiko etxebizitzak.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

Los contribuyentes que aparecen en el expediente no están empadronados en dichas viviendas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

*“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo”.*

Por todo ello, a la vista de lo expuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ACUERDA

**PRIMERO.**-NO aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en los anexos 1 y 3, relaciones que, diligenciadas por el Secretario, figuran en el expediente. En el caso del anexo 1 por considerar que concurren circunstancias especiales y en el 3 porque a fecha de hoy dichas viviendas no están vacías.

**SEGUNDO.**- Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto a los contribuyentes que figuran en el anexo 2, que diligenciado por el Secretario, constan en el expediente, ya que a fecha 1 de enero de 2015 dichas viviendas no eran viviendas habituales de persona alguna.

**TERCERO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

## 12.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Jarduera ekonomikoa.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de



Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, ta 2015eko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gainera Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errenergua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainera, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarren ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona bteko edo gehiagok okupatuta dagoela.

Hala ere, errenergua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

*“Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak...”*

Espedientean azaltzen diren zergadunak beraien etxebizitzak goran aipatutako egoeran daude.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Errenergua EZ aplikatzea espedientean agertzen diren zergaduneei.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

2012.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral, acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

*“Las que se utilizan de modo continuado para actividades mercantiles o profesionales.”*

Los contribuyentes señalados en el expediente se encuentran en la situación anterior.

Por lo tanto, y a la vista de cuanto antecede, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO.-** NO aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida a los contribuyentes que figuran en el expediente.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

### **13.- Ondasun Higiezin gainerako zerga. Errekargua. Herentzia.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, ta 2015eko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gainerako Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekargua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainera, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarren ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona bteko edo gehiagok okupatuta dagoela.

Hala ere, errekargua aez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen (15. artikuluko e) atala)

*“Herentziaz jasotzen diren etxebizitzak bi urtez egongo dira salbuetsita errekargu honetatuz.”*

Espedientean azaltzen diren zergadunak azken bi urteetan jaso dute etxebizitza herentzia bidez,

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENEA.-** Errekargua EZ aplikatzea espedientean agertzen diren

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral, acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo (art. 15.e):

*“Las viviendas recibidas en herencia estarán exentas de este recargo por dos años (contando a partir del día del fallecimiento)”.*

Los contribuyentes señalados en el expediente han recibido la vivienda en los dos últimos años mediante herencia.

Por lo tanto, y a la vista de cuanto antecede, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

#### **ACUERDA**

**PRIMERO.-** NO aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida a los

zergaduneei.

contribuyentes que figuran en el expediente.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

#### **14.- Ondasun Higiezin gaineke zerga. Errekargua. Alokairua.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratuta zen.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, eta 2015eko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gaineke Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral, acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Hala ere, errekarua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

*“Errentan emandakoak. Hori ziurtatzeko, alokairu kontratua aurkeztu beharko dute. Kontratu honen berri emango zaio Ogasunari. Alokairua urteko martxoaren 31 baino lehen edo aurreko urteko 2. seihilabetean egon beharko du indarrean.”*

*“Las dadas en alquiler. Se exigirá el contrato de alquiler. Se dará cuenta de ello a la Hacienda Foral. El alquiler tendrá que estar en vigor antes del 31 de marzo del mismo año o en el segundo semestre del año pasado”.*

Beraz, kontuan izanik, eranskinean azaltzen diren zergadunak alokairu

Teniendo en cuenta que los contribuyentes que figuran en el

kontratua ekarri dutela etxebizitza horiek errentan daudela ziurtatzeko,

expediente han presentado el contrato de alquiler para certificar que dichas viviendas figuran en alquiler,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ERABAKI DU**

## **ACUERDA**

**LEHENA.-** Errekargua EZ aplikatzea Idazkariak diligentzia-tutako zerrendan agertzen diren zergadunei.

**PRIMERO.-** NO aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en la relación que, diligenciada por el Secretario, figura en el expediente.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

### **15.- 8/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **8/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **258.362,88** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **8/2015** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:**

### **Eraso sexuala jasotzeagatik hainbat laguntza.**

Apirilak 12an gertatutako eraso sexualarengatik, biktima behar duen hainbat laguntza direla eta, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzorde honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Aholkulari juridikoaren kostua udalaren laguntzarekin ordaintzea lehenengo instantzian.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta interesatuari.

### **Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Bizigarritasun Baldintzak.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAO n argitaratu zen.

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, ta 2015eko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarren ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezinaren pertsona bteko edo gehiagoko okupatuta dagoela.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Errekargua aplikatzea eranskinean agertzen diren zergaduneei.

Eranskinean azaltzen diren zergadunak beraien etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituela edo bete ez ditzaketa ez dute frogatu.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral, acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Por lo tanto, y a la vista de cuanto antecede, la Junta de Gobierno por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

### **ACUERDA**

**PRIMERO.-** Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida a los contribuyentes que figuran en el anexo del presente acuerdo.

Los contribuyentes señalados en el anexo no han justificado que sus viviendas no cumplan o no puedan cumplir con las

condiciones mínimas de habitabilidad.

**BIGARRENA**.- %50eko errekgua EZ aplikatzea, bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituztelako, ondorengo zenbaki finkoa duten Ondasun Higiezinei: 5160388 eta 102244.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta erabaki hauek eragindako jabekideei.

**SEGUNDO**.- NO aplicar el recargo del 50%, a los Bienes Inmuebles correspondientes a los siguientes números fijos: 5160388 y 102244, por no cumplir con los requisitos mínimos de habitabilidad.

**TERCERO**.-Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los titulares afectados por estos acuerdos.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 14:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**